

### Aisialdia

Koadrigak, gladiadoreen borrokak... ikuskizun publikoz ospatu ohi zituzten jai eta gertakari nabarmenez beterik zegoen erromatarren egutegia. Botere publikoek, magistratuek edo pertsona gorenek finantzatu ohi zituzten, baina halako dirukopuruak gastatzen ziren ikuskari horien antolaketan ezen, sarritan, enperadoreak berak bere gain hartu behar izan zituen zorrak. Herria jolas bidez kontrolatzeko erabiltzen ziren ikuskizunok. Euskal Herrian gutxi ziren halako ikuskariak aurkezteko eraikinak: teatro posible bat Irudian eta zirku bat Calagurrisen (Kalagorri). Nolanahi ere, eraikuntza bereziki horiek ez ziren ezinbestekoak gertatzen; xede horretan, plazez edo denbora baterako instalazioez balia zitezkeen betiere.

Zirkuko lasterketetan hainbat taldek parte hartzen zuten: talde zuria, berdea, gorria eta urdina. Publikoak ongi pasatzen zuen eta apustu ugari gurrutzatzen. Marrazki honek Calagurris (Kalagorri, Errioxa) zirkuan egindako koadrigalasterketak gogoratzen ditu. Hemen, modu eskematikoan, irudikaturik ageri dira bai *spina*, gurdia inguratu beharreko erdialdeko murrua, eta bai helmuga ere, girnaldabatez seinalatua. Txapelduna ereinotz-koroa, garaipenaren sinboloa, buruan duela ageri da.